

## Galdera

**Testu-liburu batean «Zerbitzariak zopa-platerkada zerbitzatu dio bezeroari» esaera aurkitu dut. Ez ote da zuzenago «platerkada zopa zerbitzatu dio» esatea?**

### Erantzuna

Platerkada zopa da forma zuzena.

#### 1/ Euskaltzaindiaren Hiztegia:

«platerkada bat tripaki»

#### 2/ Orotariko Euskal Hiztegia:

«Hiru platerkada arroz jan ditu» (ortografia geuk eguneratu dugu)  
«Eman zizkion Jakobek anaiari ogia eta platerkada lenteja»  
«Platerkada bat babarrun»

#### 3/ Elhuyar Hiztegia (Adibide gehiago / Consumer):

«platerkada handi bat eskarola edo letxuga, berenjena baten erdia... »

#### 4/ Labayru Hiztegia:

«platerkada indabea jan dau»

#### 5/ Morfosintaxiaren inquruko zalantzak eta arqibideak, 5.7.4. *Neurri-sintagmak*, 137. or. (IRALeren Estilo-liburua):

«a) Esanahia. Kantitateak aipatzen ditugunetan, «zenbatzailea + neurri-izena + gaia» egitura erabiltzen dugu. Neurri-izena unitate jakin bat izan daiteke (kilo, litro, metro...) edo bestelako hitz arrunt bat (baso, kamioi(kada), eskukada...). Horrela osaturiko sintagmei neurri-sintagma esango diegu.

- (716) a. baso bat ur  
b. bi botila ardo  
c. bost litro esne  
d. bi kamioi(kada) egur  
e. eskukada bat arroz  
f. bi kilo azukre  
g. sei metro soka

Sintagma horiek ez dira nahasi behar ohiko izen-elkarketekin: ez dira gauza bera, adibidez, goiko «baso bat ur» hori eta «ur-baso bat» ('ura edateko baso bat').

Zalantzak gertatzen dira, batzuetan, egitura baten eta besteren artean. Zer esan nahi den, bata edo bestea hautatu behar da: «botila bat ardo» esatean zenbat (ardo) adierazten dugu, eta «ardo-botila bat» esatean, berriz, zer (botila). Beraz, honako hauek guztiak honela esatekoak dira, neurri-sintagma gisa, zenbat adierazten ari garen heinean (zehazkiago, zenbat zer):

- (717) a. \*Olio-baso(kada) bat bota.  
b. Baso(kada) bat olio bota.  
c. Baso bete olio bota. / Basoa bete olio bota.
- (718) a. \*Bi porru dozena eman zizkion.  
b. Bi dozena porru eman zizkion.
- (719) a. \*Gozatu, zenbait azukre-koilarakada botata.  
b. Gozatu, zenbait koilarakada azukre botata.
- (720) a. \*Lau laranja kilo.  
b. Lau kilo laranja.
- (721) a. \*Gari-zaku baten pisua 85 kg da. Zenbat zaku daramatza 35,70 tonako karga daraman kamioi batek?  
b. Zaku bat gariren pisua 85 kg da. Kamioi batek 35,70 tonako karga dakar. Zenbat zaku dira?
- (722) a. \*Ur dezimetro kubiko batek kilogramo bateko masa du.  
b. Dezimetro kubiko bat urek kilogramo bat du masa.
- (723) a. \*Sagar kiloko, kilo laurden azukre jarri behar da.  
b. Kilo bat sagarreko, kilo laurden azukre jarri behar da.

Azken horren tankerako perpausetan, gerta liteke zenbatzailea ez bat izatea: «bi kilo sagarreko, kilo erdi azukre» eta abar.»

\* Zeinuak (izartxoak) adierazten du haren ondoren idatzita dagoena ez dela zuzena.